



**Arartekoaren 2015R-2578-14 Ebazpena, 2015eko maiatzaren 4koa. Horren bidez, Irungo Udalari obra batzuk hirigintza legezkotasunari egokitzeko dagokion izapidearekin jarraitzeko gomendatu zion.**

### Aurrekariak

1. Pertsona bat erakunde honetara zuzendu da iritzia eskatzeko, Irungo Udalak (...)ko (...) zenbakian dagoen eraikin bateko etxebizitzan hirigintza legezkotasuna betearazteko izan duen jardun ezaren aurrean.

Zehazki, Irungo Udalari 2012ko urtarrilaren 19ko udal erabakia betetzeko hainbat aldiz eskatu diola azaldu zigun. Ebazpen horretan (...)ko (...) zenbakiaren (...) etxebizitzaren itxieraren inguruko hirigintza legezkotasuna lehengoratzeko agindua eman zen. Alkateak 2014ko uztailea hirigintza araua betetzeko aurreikusitako jardunen berri eman zion.

Hala ere, kexagileak azaldu digu denbora pasa dela eta ez duela informazio gehiago jaso, eta horregatik bidali digula kexa.

2. Erreklamazio hau izapidetzeko onartu ondoren, Irungo Udalari udal ebazpen hori betetzeko jarraitutako udal jardunen gaineko informazioa eskatu genion, eta kasu honetan jarraitutako administrazio espedienteen kopia bidaltzeko.

Gure eskaerari erantzunez, 2015eko apirilean, Hirigintza eta Ingurugiro zinegotzi arduradunak txosten bat bidali zigun. Horren bidez, aurkeztutako salaketen aurrean data horretara arte jarraitutako udal jardunen berri eman zigun. Horrela bada, honako ebazpenak jaso dira:

- 2010DIUR00102 espedientea. Bertan, 2010eko abenduaren 24ko kexagilearen salaketa agertzen da, aipatutako etxebizitzaren aurrealde nagusiko itxitura metalikoak desmuntatzeko eskatuz.
- 2011ko 224 Ebazpena. Horren bidez, egindako legez kanpoko obregatik hirigintza legezkotasuna berreskuratzeko espediente bat abiarazi zen.
- 2012ko urtarrilaren 18ko Gobernu Batzordearen Akordioa. Horren bidez, berreskuratze espedienteari amaiera eman eta atzeko fatxadetan txapitularen itxitura ordenamendutik kanpo utzi zen eta alboko eta aurrealdeko fatxadetan etxebizitzako txapitulen itxierak desegitea agindu zen. Horretarako, hilabete bateko epea ezarri eta betetzen ez bazen isun hertsatzaileak jarriko zirela ohartarazi zen.

Ebazpen horren aurrean obren sustatzaileak 2012ko otsailaren 15ean berraztertzeko errekurtoa aurkeztu zuen.





Irungo Udalak jakinarazi digunez, hiru urte baino gehiago pasa diren arren, ez du errekurtsua ebatzi. Uste du errekurtsua ebatzeko betebeharrari kalterik egin gabe, "ezeztatutzat jo behar dela", 30/1992 Legearen 43. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Kexagileari hainbatetan eman diote arreta espedientearen egoera, udal administrazioaren jarduteko aukerak eta udalak gauzatze agindu bat betetzeko dituen 15 urteko gehieneko epea azalduz.

Udal erantzunak ez dizkio Arartekoari bere aurrean aurkeztutako kexaren ondoren jarraitutako izapideak jakinarazten.

Erreklamazioa kontuan hartuta eta kexaren planteamendua zein udalak igorritako informazioa aztertu ondoren, honako gogoetak helarazi nahi dizkiguzu:

### Gogoetak

1. Kexa honen gaiak 2012ko urtarrilean Irungo (...)ko (...) zenbakian dagoen eraikinaren (...) etxebizitzaren txapitulen itxierak kentzeko emandako desegite aginduaren betetze eraginkor falta azaleratu du.

Arartekoari emandako udal erantzunean, Irungo Udalak dagokion baimenik gabe egindako legez kanpoko itxiera obren hirigintza diziplinaren espedienteari hasiera emango diola jakinarazi zion, alboko eta aurreko itxierak desegiteko ordenaren ondoren, obren sustatzaileak errekurritu duena. Udal txostenak errekurtsua ezeztatutzat jo behar dela dio, eta edozein kasutan, 15 urteko epea duela betetzea exijitzeko.

Erakunde honen aurrean jarritako salaketaren ondoren ez dago hirigintza legezotasuna betearazteko hartutako neurrien gaineko informazio gehiago.

2. Hirigintzako diziplinaren alorrean, udal administrazioek jardueren kontrolean eta hirigintzako antolamenduak arautzen dituen egintzen kontrolean esku hartzeko eskumena dute, hirigintzako ikuskapenak eginda eta hirigintzako lizentziak emanda.

Hain zuzen ere, hirigintzako diziplinako ahalmenei ezin diete uko egin agintariak eta funtzionarioek, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak agintzen duenez. Zehazki, hauxe jasotzen da bigarren paragrafoan:

*"Titulu honetan araututako ahalez baliatzea utziezina da. Horretarako, agintari eta funtzionarioak behartuta daude ahal horietaz baliatzeko ezarritako prozedurak hastera eta izapideak egitera, kasu bakoitzerako aurreikusitako epearen barruan. Betebehar hori ez betetzeak diziplina-erantzukizuna sortuko du."*





Erantzuteko eta hirigintzako legezketasuna berrezartzeko neurri egokiak ezartzeko betebeharra salatzailearen eta salatutakoaren artean egon litezkeen balizko liskarretatik bereizi behar da. Hirigintza lizentzien ezaugarrietako bat euren izaera neutroa da, egoera edo eztabaida juridiko-pribatuak alde batera utzita ematen dira; hala ere, aldean arteko diferentziak hirigintza izapideetatik kanpo geratu behar dira.

Hirigintzako diziplina eta ikuskaritzako ahalmena halabeharrez lotuta daude udal planeamendua eta hirigintzako legeria betetzearekin. Partikularrek ez jarduteak ez du hirigintzako legezketasuna defendatzeko funtzio publiko hori kaltetu behar.

Horregatik, udal administrazio horrek, kasu bakoitzean ezarritako epeetan, agindu zaizkion ikuskaritza, egiaztapen eta kontrol ahalmenak gauzatzeko ezarrita dauden prozedurak hasi eta izapidetu behar ditu.

Aurkeztutako salaketaren aurrean, udalak egiaztatu behar du lizentziak obra horiek babesten dituen eta, hala badagokio, hirigintzako udal arauekin bat datozen.

Hirigintzako legezketasuna berrezartzeko aginduen gauzatzetik eza (LHLren 224,6. artikulua hala aginduta) isun hertsagarriak eragingo ditu eta, hala badagokio, aldatu den errealitate fisikoaren lehengoratzera modu subsidiarioan gauzatzea.

Hirigintza arloko legeriak azaltzen duenez, desegite-agindua betetzeko obligazio hori ezin uko eginezkoa da, eta obligazio horren eragina iraungitzeko 15 urteko epea izan arren, betearazpenak ez du denboran luzatu behar.

3. Era berean, berraztertze errekurtsoa jarri izanak ez du atzeratu behar agindua betetzea. Kasu honetan, udal txostenak berak dion bezala, desegite aginduaren aurka jarritako berraztertze aukerako errekurtsoak legedian aurreikusitako legezko epearen barruan erantzuteko betebeharra dakar.

Gogorazi behar dugu herri-administrazioek interesdunek egiten dituzten eskaera guztiei berariazko erantzuna emateko betebeharra dutela. Udalak behar bezala izapidetu behar ditu biztanleek aurkezten dituzten idazki guztiak, arin, biziki eta eraginkortasunez, espedientea behin betiko ebatzi edo amaitu arte.

Horrela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua berariaz jasotzen du herri-administrazio guztiei zuzendutako agindu hori.

Era berean, esan behar dugu erantzuteko betebeharrak ebazteko epea amaitu denean ere irauten duela, eta ebazpena eman behar duen organoaren titularrari diziplina-erantzukizuna sor diezaiokeela.





Prozedura-izapideak eta herritarrentzako egiazko erantzuna egotearen bermea Espainiako Konstituziotik beretik dator —103.1 eta 105. artikulua— eta, Lisboako Itunak sartutako Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartako 41. artikulua xedatzen duenez, herritarrek administrazio egokirako duten eskubidearen baitakoak dira.

Dagokion izapideak bideratu ez direnez eta, bereziki, kexagileak jarritako errekursoari administrazio-ebazpenik eman ez zaionez, administrazioak ez du normaltasunez jokatu eta Ararteko erakundeak horren berri eman behar du.

Gauzak horrela, Arartekoak azpimarratzen du udalak kexagileak aurkeztutako errekursoari alait lasterren erantzun behar diola egindako eskaeran eta aipatutako legezketasunean xedatutakoari jarraiki.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarri duenarekin bat etorriz, honako gomendio hau egin diogu Irungo Udalari:

## GOMENDIOA

Hirigintza araudian xedatutako prozeduren bidez, dagozkion neurriak har ditzan salatutako obren hirigintza legezketasuna berrezartzen dela bermatzeko, Hirigintzari eta Lurzoruari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 224,6. artikuluko xedapenei jarraiki.

